

Sortzailetako batzuk

1974an abiatu ginen portutik. Guta-ko batek bidaia hori luzea eta emankorra izango zela iragarri zuenean, txango horretan aurre egin beharreko oztopoen zerrenda errepasatzen hasi ginen gure golkorako: trebatu gabeko hizkuntza zen trebatu gabeko idazle on lanabes bakarra. Itsu-itsuan ekin genion eta urteak joan urteak etorri, gure bidaiaren helburua urrun dakusagularik, 100. bidai etapa osatzera goaz. Orduko eta gaurko helbura bera izan arren, bidean asko ikasi dugula dio gaur egun egitekoaren garrantziaz mintzo zen horrek. Zer ikasteko franko dagoela gaineratu diogu, entzun orduko, besteok.

"Elhuyar. Zientzia eta Teknika" aldizkariak 100. alea bete du honekin. Gertakari xume eta apala irudi lezakeenak zientziaren dibulgazioa euskaraz egiten dugunontzat esanahi handia du. Elhuyar Kultur Elkarteak sortzaileek eta urteen poderioz asmo berberara bildutakoek lehen urratsa norabide zuzenean eman zutela baieztatzen du horrek, besteak beste. Une egokia iruditu zaigu beraz, begiak apaltasunez atzerantz bueltatu eta memoria freskatzea. Horixe da irakurle,



1. Iñaki Azkune;
2. Feliz Azpirotz;
3. Luis Mari Bandres;
4. Jesus Mari Goñi;
5. Rene Harluxet; 6. Xabier Larrea;
7. Andoni Sagarna; 8. Imanol Tapia;
9. Kepa Zalbide; 10. Mikel Zalbide

ondorengo orriotako "saski-naskiak" lortu nahiko lukeena: sorrerako giroa eza-gutu ez zuenari garai horretako kezken berri adierazteko parada eskaini batetik, eta bidea gurekin batera egin dutenei, gizabideak agindu legez, eskerrak ematea bestetik. Duela 25 urte abiatu zen itsasuntziak jira-bira asko egin behar izan dituela ez zaigu ahaztu. Orduko eta gaurko helburua bera da, baina horretarako erabiltzen diren bitartekoak aldatu izanak denbora aurrera egin duela adierazten digu. Egindakoaz harro gaudela esateak ez dizkigu koloreak gorriarazten: euskarari zientzi agerpide egokia eta atsegin osatzen ahalegintzen ari gara, eta beti-beti asmatu ez badugu ere, bidean erortzen eta akatsetatik ikasten ari garela-koan gaude.

100. aleak azkenik, bidea luzea izango dela berretsi egiten du. Helmugarik ez du aldizkariaren bidaiak, baina nabigatzen ari gara eta oraingoz, horixe da garrantzitsua. 📝✍️


100 ale bizkar gainean

ELHUYAR

1974-1995

L. Bandres Unanue

A. Bayo/Argia



"Euskal kulturan ia dena egiteko daukagula gauza jakina eta tamalgarria da. Sukaldeko girotik eta lagunartetik irteten garen bezain laster, bide ilunetatik abiatzen gara (...) Euskarari, zientziaren plazara jalgi dadin, agerlekuak prestatu behar dizkiogu".

Asmo eta egitekoen aldarrikapen garbia da Elhuyar taldeko sortzaileek 1974ko irailean plazaratu zen lehen aleari hasera emanaz argitara eman zuten hori. Geroztik euri franko egin duela gauza jakina, baina gaur egungoaren kimua orduantxe landatu zela ezin izan dugu ahaztu. Ondorengoak sorrerako oroitzapenak dira.

Irakurle maite hori: zure adina berrogei urtetakoa bada, gutxi gora-behera, saia zaitez gogoratzen; gazteagoa bazara, zorionak!: Hirurogeigarren hamarkada eta hirurogeita hamargarrenaren hasierako urte latzak gogoratzeko ez duzu aukerarik izan. Urte horietan ez zen batere erraza euskal kulturaren alde lan egitea, ez bakarrik laguntza ekonomikorik ez zegoelako, ia delitutzat hartzen zelako baizik, diktadura batek dakartzan ondorio guztiakin.

Hala eta guztiz ere, garai hartan Euskal Herriko unibertsital ikastetxe askotan, egoera horri aurre egiteko, talde batzuk abiatu ziren: Euskal Kultur Taldeak (EKT), hain zuzen. Horietako bat Donostiako Injineruen Goi-Eskolan 1968an jarri zen martxan eta, beste zenbait ekintzen artean, bertan zientzia eta teknika euskaraz lantzeari heldu genion. Hutsetik abiatu girela esaten badut, ez naiz egiatik oso urruti ibiliko: Gerra aurretikako guztiz garbizaleak ziren "Pisia" eta "Kimia" izeneko bi liburuxkak, borondate onez egin-

dako hitz-zerrenda zientifiko bat edo beste, eta kitto. Pentsa daitekeen bezala, hasiera horretan lortutako uzta ez zen gizartearen aurrean jartzeko, ezta gutxiagorik ere.

Baina urteak aurrera zihoazen eta eskolan euskararen taldean ibilitako batzuk, ikasketak amaitu ondoren, lanpostuaren bila irten ginen. Hala ere, harra barnean genuen eta 1972an, hasitako lanari segida ematearren, berriro harremanetan jarri ginen. Horrela, Donostiako San Martzial kaleko San Ignazio elkarteko gela batean larunbat arratsalde batean gure lehen bilera egin genuen: Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Jesus Mari Goñi, Juanjo Gabiña eta neu, oker ez banaiz (bigarren bileran edo, Iñaki Azkune etorriko zen). Eta horrela, larunbatero arratsaldez elkartuz, gure artean lanak banatuz eta batzuek beste-enganetik ikasiz, gure eraikuntza hasi genuen.


Izerdi bidez lortutakoa pipi-jan bihur ez zedin, kanpora atera behar genuen eta horretarako agerpide bat beharrezkoa zen,


hots, aldizkari bat. Pentsatu eta erabaki. Hasteko aldizkariarentzat eta bide batez taldearentzat, izen egoki bat behar genuen eta zein egokiagoa Elhuyar baino?

Fausto eta Juan Jose Elhuyar anaiek, nahiz Logroñon jaiok izan, gurasoak iparreuskaldunak zeuzkaten, biak Bergarako Erret Mintegian aritu ziren eta bertan Euskadin lortu den zientzi aurkuntzarik handiena egin zuten, hau da, wolframio izeneko elementu kimikoa identifikatzea eta bereiztea. Izena erabakita zegoen eta harrez gero, bai taldea bai aldizkaria Elhuyar izango ziren. Izena bai, baina izana erdiesteko bi gauza gehiago behar ziren: zentsura gainditu ahal izateko, ospe handiko elkarteren baten itzal ofiziala batetik eta bestetik, badaezpada ere, zuzendari baten izena. Bigarrena erraza izan zen: bilera batean une batez atera

behar izan nuen gelatik eta itzuli nintzenean zuzendari izendatuta negoen. Lehenengoa lortzeko berriz, “Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País” elkartera jo genuen eta zenbait elkarriketa izan ondoren, bere babesa eskuratu genuen.

1974ko irailean “Elhuyar” izeneko aldizkariaren lehen aleak argia ikusi zuen. Gaurko begiz begiratu, xumea eta apala zen hura, baina guretzat garai horretan lorpen izugarria izan zen.

Urte asko iragan da geroztik eta zorionez, gauzak asko aldatu dira. Oraintxe eskuan daukazu aro berriko 100. ale hau benetan ederra eta ikusgarria bada, bere aurretik beste asko, bera baino askoz apalagoak, argitaratu direlako da, neurri handi batean. Bai eta ilusio izugarriaz beterik mila bilera, eskaera eta lan egin direlako ere. 



Argazkian ikusten duzun azala irakurle, Elhuyar elkarteak 1974ko irailean taldearen izen berarekin argitaratu zuen lehen alearena da. Garai hartan lorpen handia izan zen.

A. Iasne/Egunkaria



P.M. Etxenike

Ikerlariok euskaraz

Egia aitortzeko, ez naiz oso ongi gogoratzen zergatik idatzi ote nuen artikulu hura. Garai horretan gaur egun gaindituta dagoen eztabaida pil-pilean zegoen. Garai horretantxe Adolfo Suarezek esana omen

zuen ezin zitekeela euskara erabili kimika nuklearrari buruz hitz egiteko edota erakusteko. (Betiko leloa beraz, geurean askotan gertatzen den bezala, ez bata eta ez bestea ezagutzen ez dituenak iritzia eman beharra.)

Eztabaida horrek bultzatu ninduen EEBBetan Ritchie irakaslearekin batera egindako ikerketaren emaitzetaz artikulu bat euskaraz idaztera. Ritchie irakaslea ados azaldu zen.

Lehen eta orain, fisikaz euskaraz ongi aritzeko bi gauza ongi jakin eta menperatu behar dira: fisika eta euskara. Horixe da beharrezkoa eta nahikoa den baldintza. Nire euskara ideiak beharrezkoa zen zehaztasunez azaltzeko gauza ez zenez gero, adiskide batengana jo nuen. Ibon Sarasolak esku zabalez, lagundu zidan.

Elhuyarreko artikuluan irekita-ko bidetik ikerlari asko joan da. Pozgarria izan da benetan munduko aldizkari askotan Elhuyarreko artikuluarai aipamen egin zaiola ikustea. Guk teoria linealean egindako lanari Pitarke jaunak jarraitu dio, teoria ez-linealean emaitza aipagarriak lortuz. Lan horrek Eusko Ikaskuntzaren Zumalabe saria lortu zuen eta aurten Physical Review delako aldizkari ospetsuan azalduko da. Horrek ere biziki pozten nau.

Artikulua Mikel Zalbidetik egin zidan elkarriketarekin batera argitaratu zen. Han, beste zenbait gauzen artean, gogoratzea komeni den zerbait esaten nuen. Euskal Unibertsitaterako biderik egokiena euskaldunok EHU-ko katedrak lortzean datzala, hain zuzen.



Elhuyar anaiak...

I. Azkune Mendia

Joan Jose eta Fausto Fermin Elhuyar Lubize anaiak, Logroñon hurrenez hurren 1754-VI-15ean eta 1755-X-11n jaio ziren. Joan Elhuyar aita zirujau famatua zen; Hazparden jaioa eta Donibane-Lohizuneko Ursula Lubizerekin ezkondua. Ursula ama hil zenean, Joan Elhuyar berriz ezkondu zen bere Joan Jose, Fausto eta Maria Lorentza hobeto zaintzearen.

1772. urtean Joan Jose eta Fausto Fermin anaiak Parisera joan ziren “*Le Jardin du Roi*” ikasketxean ikasketak egitera. Han batez ere kimika eta mineralogia landu zituzten, baina botanika, zoologia eta abar ere bai.

1777. urtean Joan Jose Parisetik *Bergarako Erret Mintegira* (Xabier Maria Munibe eta Azkoitiko Zalduntxoek sortutakora) etorri zen lanera eta hurrengo urtean,

1778.ean, anaia Fausto ere bai. Laborategian aritu ziren bi anaiak lanean, baina handik laster joan ziren Europan barrena (Paris, Strasburg, Mannheim, Freiburg, Leipzig eta abarrera) metalurgia eta mineralogiako azken berrikuntzak ikastera. 1781.ean Austriar eta Hungarian batera ibili ondoren, Fausto Bergarara itzuli zen eta Joan Josek Suediako Uppsalara joanda wolframita minerala analizatzen ikasi zuen Bermanen eskutik.

Joan Jose 1782. urtean itzuli zen Bergarara eta bi anaiak laborategian wolframioa isolatzen saiatu ziren. Baita munduan lehen aldiz elementu kimiko hau isolatzea lortu ere. Aurkikuntza nagusi haren berri 1783. urtean eman zen Herri Lagunen Gasteizko Batzarre Nagusian.

Gero Fausto Fermin Alemania eta Hungarian ibilita Mexikora joan zen. Han “*Real Seminario de Minas*” izeneko erakundea sortu zuen; hango lehen injineru-eskola, alegia. 1821.ean Espainiara itzuli zen eta Madrilen hil zen 1833. urteko urtarrilaren 6an.

Joan Jose anaia Kolonbiara joan zen eta hango meatzeak hobetzen saiatu zen. 1796. urteko irailaren 20an hil zen Bogotan. 📄

... zergatik?

Buruz ari naiz eta horretan edo hartan oker egon naiteke. Gogoan dudana, dena den, honako hau da. Batetik, injineru-eskolan ibilitako eta han genbiltzan batzuk, emakumezko-rik ez zen artean, astero-astero biltzen hasi ginen. Zientzi eta teknika-gaiak euskaraz idazten ari ginen. Halako batean, ez berehala, aldizkari bat sortzeari ekin genion. Izena behar horretarako, diruaz eta lege-babesaz gainera. *Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais*-era jo genuen, besteak beste, babes bila.

Elkarte horrek XVIII. mendearen bigarren erdialdean zientzi-tekniken alorrean egindakoaz ezaguera zuzenagoa izan ahala, Elhuyar anaien biografiarekin topo egin genuen. Norbaiti, ez dut gogoan nori, aldizkariari anaia horien deitura ematea okurritu zitzaion eta gainerakooi ondo iruditu: horra *Elhuyar* aldizkaria eta haren garapenez, izen bereko taldea (lehenik) eta elkarte (geroago). Izena nola idatzi ordea, *Elhuyar* edo *El(h)uiar*? Bagenekien Mitxelena batek, adibidez, bere *Apellidos Vascos* lanean El(h)orri + (e)jihar osagaietan banaturik azaltzen zuela. Guk nola eman behar genuen, ordea, orain? Bietarako aldekoak genituen gure artean. Luis Villasante euskaltzainbu-

Argia



Mikel Zalbide

ruari galdetzea erabaki genuen. Baita egin ere, Donostian eman zuen hitzaldi baten ondoan. Aukera bien on-gaitzak pisatu eta neurtu ondoren, “kasik bere orduko idazkeran uztea hobeto izango duzue” iradoki zigun. Berak esan eta guk egin.

Elhuyar izeneko zientzi aldizkari xume eta itxura zarpaileko hura (barka nazate Luisek, Andonik eta besteek, baina nik itxura zarpaila hartu nion ezagutu nuenean) alor berriak jorratzera zetorren euskal kulturaren: zientzia eta teknologia. Gabirel Jauregiren gerraurreko *Pisia* eta *Kimia* liburuez landa, deus gutxi zegoen zientzi gaiez euskaraz. 1974ko irailean argitaratutako 40 orrialdeko lehen alean euskalgingtzaren plazara zetorren agerkari

Hogeita bat urte eta 100 ale

I. Irazabalbeitia

Badakit jakin artikulu honen izenburua nahasgarria dela.

Halaxe nahi izan dut.

Berari so eginez hogeita bat urtetan ehun ale baino ez dituela Elhuyar aldizkariak

plazaratu pentsa lezake baten batek. Alabaina, irakurle zuhurra ez da tronpatuko eta bi zatiak bereizten asmatuko du.

Bi hari-mutur txirikordatu nahi ditut lerro hauetan.

Gure elkarte zientzi agerkari bat kaleratzen hasi izana batetik eta "Elhuyar.

Zientzia eta Teknika" aldizkariak 100 ale argitaratu izana.

berriaren asmoak argi eta garbi adierazi ziren editorialean:

"Euskarari, zientziaren plazara jalgi dadin, agerlekuak presatu behar dizkiogu bere sortzaileek nolakoa den erakus diezaguten eta denon artean haiei lagun diezaiegun gero eta heldua goa, egokiagoa, apainagoa sortzen."

Ondo adierazten zuten arestiko lerrook helburua: *"bere sortzaileek nolakoa den erakus diezaguten"*. Aldizkaria osatzerakoan ez zitzaion nagusiki irakurleari begiratzen, horrelako aldizkari batean beharko zukeen moduan, idazleari baizik. Idazleak eta hizkuntza trebatzea zen helburua eta hori produktuan igertzen zen. *"Hik kimikaz idatzi euskaraz, berdin zaiok zertaz"* esan zidaten niri elhuyarkideek gerturatu nintzaienean eta halaxe bota nituen inork irensterik ez zituen kimikazko lan astunak.

Gaur eguneko ikuspegitik jokaera okerra irudi lezakeena, ez zen orduan filosofia okerra, egin beharrekoa baizik. Idatziz trebatu nuen

INFORMATIKA VERSUS AUTOFORMAZIOA

**A. Sagarna
eta
J. Aizpurua**

1984. urterarte idazmakina izan ziren liburuak egiteko erabilitako teknologia. Urte horretan aldaketa estrategikoa gertatu zen Elhuyarren, testuak prozesatzeko Rank Xerox ordenadore bat erosi genuenean. Idazmakinekiko abantaila izugarria zen eta horrela, matematikako formulak idazteko edota zuzenketak egiteko ez zen garai bateko esfortzua egin behar. Alabaina, inprimagailurik ez genuen, izan ere oso garestia baitzen. Beraz, beste zerbaiten bila jarraitu genuen eta 1986an merkaturatu berri zen Macintosh, laser inprimagailuarekin batera, bulegora ekarri genuen. Teknologia horrek egonkortasuna emateaz gain, bide berrietarako atak zabaltu zizkigun. Liburuak txukun egiteko sistematzat hartu genuen hasieran, baina gaur egun aldizkari harridun edo hiztegi entziklopedikoko sarreraren datu-basea Macintoshean ditugu.

Joan den hamarkadaren bukaera aldeira, hekontz-softwarea IBM Pc plataforman garatzen hasi ginen eta hainbat produktu garatu ditugu matematikak, fisika, geografia edota euskara ikasten laguntzeko.

Azken urteotan beste urrats bat eman dugu eta hori multimediaren arloan sartzea izan da. Horretarako, Macintosh eta IBM Pc plataformetan aritu izateak eman digun esperientzian oinarritu gara eta jadanik gure lehen produktua, hau da, *"Ezagutu Gipuzkoa"* CD-ROMa kalean dago.

Dena den, informatizazio-prozesuaren arrakasta elhuyarkideek berrikuntzetarako izan duten ahalmenean oinarritu da.

neure burua eta idatziz trebatu zen hizkuntza. Bidea ibilian-ibilian egiten dela idatzi zuen poeta andaluz handi batek eta gure kasuan ez zitzaion arrazoirik falta. Halaxe, adibidez, Luis Bandres fisikaren bideetatik abiatu zen lehen ale hartan eta aiez ale "abiatzen", ikastoletako irakasleak fisikako kontzeptuak euskaraz azaltzeko materiala pilatzen joan ziren. Berdintsu beste zientzi alorretan. Ez zegoen zain egoterik.

Hurrengo urteetan ideia berari eutsiz jarraitu zuen aldizkariak: idazle berriak bilatu eta hizkuntza trebatu. Egon ziren salbuespenak hala ere. 17. alean (1978) P. M. Etxeniketik eta R. H. Ritchie-k argitaratutako "Ioi Lasterren Wake Potentziala Egoera Solidoan" izeneko artikuluak goi-mailako zientzi ikerketaren berri euskaraz ere eman zitekeela frogatu nahi zuen. Aldarrikapen eta ikur hutsa zen orduan, baina Adolfo Suarez-en hitzak fresko zeuden artean ("No se puede explicar física nuclear en catalán o vasco" piska bat goitibeheiti). Orduko salbuespena ohizkoa da gaur, ordea.

1981.ean aldizkariak bere lehen berrikuntza sakona izan zuen. Azalean bertan igertzen zen, 26. alea behar zuenari 7, 1 alea esan zitzaion, zientzi aldizkari normalizatuen bidean. Gurea ez zen normalizatua hala ere. Ale horretako editorialean hauxe esaten zen besteak beste:

"Gure aurrean gaur egun daukagun desafia oso bestelakoa delako eta egoera desberdinari harma desberdinez erantzuteko beharra gauza ebidentea da. Ez dugu, dagoeneko, zientzi gaiak euskaraz ere idatz daitekeenaz inor asko konbentzitu beharrik, ez euskaldunak bederen; hortaz gaur eguneko egitekoa beste hau da: euskaraz ere gauza interesgarriak esan daitezkeela frogatzea eta gainera modu atsegin batez adierazteko gai garela erakustea... Jendeak ez ditu euskarazko aldizkariak erosiko euskaraz idatzirik daudelako, bertan esaten dena interesgarria delako baizik."

Dibulgaziorantz urrats berria

E. Arrojeria Aldizkari zuzendaria

Behin baino gehiagotan esan bada ere, argi eta garbi utzi behar den zer-bait denez berriro errepikatzea barkatuko duzu irakurle. Elhuyar Kultur Elkartearen lehen urratsak "zientzia" eta "teknika"-ra oraindik egokitu gabe zegoen gure hizkuntza ez zela bigarren mailako hizkuntza frogatzea izan zen. Hau da, gurea besteak bezala edozein gai lantzeko egokiera duen hizkuntza dela frogatzea. Beraz eta helburu hori medio, dibulgazioa bigarren mailan utzi zen, idazleei trebatzeko aukera eskainiz eta bestela pentsatzen zutenei oker zeudela erakutsiz.

Denbora joan ahala hori egitea nahikoa ez zela eta, dibulgazioari bere lekutxo eskaintzea eta edukinaren kalitatea zaintzea izan zen bigarren urratsa. Bitarte horretan bi alderdiak orekatzen saiatu ginen, ale guztietan oreka hori mantentzerik lortu ez bagenuen ere. Jakina bide berria dibulgazioa garatzea zenez, berau izan zen gehienetan hankamotz geratu zena eta zenbaitzutan plazaratzen genituen artikuluak trinkoegiak izaten ziren. Bigarren fase honetan, irakurleari bere burua trebatzeko material egokia (edukinari dagokionez) eskaintzea genuen helburu. Eta helburu hori betetzeko genuen prestatua gure azpiegitura, dibulgazio-lanetan zebiltzanak irakasleak edo teknikariak zirelarik nagusiki eta gure indarrak euskara egokian argitaratzera biltzen zirelarik.

Gauzak horrela eta erronka berriak hurbildu ahala, beste urratsa emateko unea heldu zitzaigun. Hau da,

orduraino lortu genuena mantenduz (eta ahal balitz hobetuz, laguntzaileen sarea indartuz esaterako) itxurari astindu ederra emateko eta irudia eta imagina nagusi den garai honetara egokitzeko esfortzu berezia egiteko ordua. Pentsatu eta egin (gure maila apalean, noski), horrelako aldaketak bi zati baititu, diseinu berria batetik (eskura genuenez hori egin genuen) eta aleroko alderdi grafikoa zaintzea bestetik. Azken hau alero aplikatzen saiatzen garen arren, ez dugu nahi genukeen bezalako produktua plazaratzen beti, arazo asko medio (dirua barne).

Baina aro berri honek bazuen beste hutsune bat eta edukinarekin zerikusia du gainera. Ez da aski euskara egokian eta itxura ederrarekin argitaratzea, behar-beharrezkoa da edukina ere arintzea eta edonork era errazean ulertzeko moduan egitea. Horretarako ezinbestekoa zen ekipora kazetari bat ekartzea, eta gaur egun hori egi bilakatu da.


Beraz, eta amaitzeko esan, dibulgaziorantz urrats berriak etengabe ematen ari garela eta eskerrak eman aldiko ale berria plazaratu ahal izateko zer-bait aportatzen duzuen guttiori, hasi idazleetatik eta amaitu zurekin irakurle, irakurlerik gabe ezinezkoa baita irautea.

M.K. Urdangarin



Horixe zen erronka, gauza interesgarriak modu atseginean esatea. Ahalegina handia izan zen. Maketa aldatu zen, aldizkaria ataletan banatu zen eta zientzia eta teknikaren dibulgazioari gero eta pisu handiago eman zitzaion. Dena dela, itxura zarpaileko aldizkaria zen oraindik. Aldaketak aldaketa, Elhuyar ez zen zientzi aldizkari normalizatua eta har horrek erraiak jaten zizkigun. Ez zuen itxura estandarrik; liburu-formatuak ez zion mesederik egingen. Edukina ere saski-naski modukoa zen; eskola materialarekin hasi eta ikerketa-artikuluarekin bukatu. Euskal kulturak besterik merezi zuen eta gainera, hobetzeko paradan geunden. 1985.ean hartu genuen erabakia: zientzi aldizkari estandarra egin behar genuen. Bitan banatzea deliberatu genuen: dibulgazioa batetik

eta ikerketa bestetik. 1985eko abenduan *Elhuyar. Zientzia eta Teknikaren* zero alea kaleratu zen eta nahiz eta aurretik argitaratutako artikuluak eginiko *pastiche*-a izan eta oraingo aleekin konparatuta oso zarpaile izan, sekulako arrakasta izan zuen Durangoko azokan. Bidea asmatu genuela erakutsi zigun horrek. Hilabete gutxiren bueltan bikoiztu egin genuen harpidedun-kopurua. Ibilian-ibilian esku artean duzun aldizkari itxurosoa taxutzea jadetsi dugu, estandarretik askoz ere hurbilago dagoena. 100 ale bete ditu hasieran bihilabetekaria zen aldizkariak eta alde nabarmenak daude zero eta ehungarren alearen artean; maketan zein edukietan. Hobera egin dugula ezin da uka, baina hobetzeko asko badaukagu oraindik.

Euskal irakurleari zientzia eta teknika dibulgazio-aldizkari duina eskaintzen ari gatzazkio. Alabaina, estandarra izateko apur bat falta zaio oraindik. Artikuluaren estiloa eta komunikazio-ahalmena hobetuz eta hori egingo duten profesionalak formatzean dago erronkaren zatirik handiena. Tamalez, hori gure esku oso-osorik dagoenik ez zait iruditzen, kanpoko laguntza behar-beharrezkoa dugu. Elhuyar Kultur Elkarteak ahalegin oso handia egiten ari da *Elhuyar* eta *Elhuyar. Zientzia eta teknika* aldizkariak argitaratzeko eta ahaleginak goia jo du. Gure indarrak ez dira aski. Estandarizazioaren bidean aurrerago egin nahi bada, euskal administrazioen laguntza ekonomikoa ezinbestekoa da. Zeinek helduko dio adarretatik zezenari? 

Angia



P. Angulo

Lankidetzak

Elhuyar, *Zientzia eta Teknika* aldizkariaren 0 alea argitaratu zenean, Kortezubiko barnetegian nengoen euskara ikasten. Durangoko Azokara joan eta han jakin nuen zer zen aldizkari hura eta zer zen Elhuyar taldea. Elhuyarrenak izan ziren nik matematika-hiztegia lantzeko irakurri nituen matematika-liburuak, UZEIren hiztegiak eta UEUren Alfabetatze zientifikorako liburuarekin batera.

1986ko UEUn jaso nituen lehen aldiz matematika-eskolak euskaraz eta Elhuyarreko kideek alfabetatze zientifikoa azaldu zidaten. Urte amaieran Elhuyarrek nire lehen matematika-liburua idazteko aukera eman zidan, hurrengo urtean kaleratu zelarik. Bitartean, aldizkarian matematika gaiak J. M. Goñi eta J. Duoandikoetxea arduratzen ziren. 1987aren bukaeran atal finakoko lankidetzak eskaini zidan Elhuyarrek eta 1988. urteaz geroztik eten gabe idatzi dut matematika gaiak, hasieran *Jolas Matematikoak* atalean; gero *Matematika Bitxiak* izenekoan eta azkenik, *Matematikaren Inguruan* titulupean. Hasierako sei ale urteko, hamai-ka ale bihurtu ziren eta horrek burua astintzera behartu gintuen. Ez zen beti erraza asmatzea zer idatzi hurrengo alean. Baina, egia esan, lana gustukoa nuen eta buruan ideiek zirakidaten.

Historia alde batera utzita, nire gogoeta ekarri nahi dut hona. Aldizkari batean idazteak sortzen duen hasierako emozioak helburua laino dezake. Nire helburua matematika zabaltzea bazen, ezin nintzen idazte soilarekin konformatu. Galdera hauek eta gehiago datozkit burura: Interesgarriak al dira nire artikuluak? Zenbatek irakurtzen ditu? Eta kalitatea? Eta maila? Agian, idazle gehienek egingen dituzten galdera berberak, idazleen bakardadea ote? Hala ere, ez dakit zer erantzun. Irakurleen aldekoa ez dut ezagutzen. Elhuyarrek egin zuen inkestaren emaitzen arabera, matematika-gaiak %18k irakurtzen ditu. Aprobetxatu nahi nuke okasio hau irakurlea animatzeko, ideiak, artikuluak, iritziak eta laguntza eman ditzazuen. Atal hori, *Matematikaren Inguruan*, ez da itxia, ez da nirea edota Elhuyarrena, irekia eta guztiona baizik.

Eskerrak eta zorionak Elhuyarri!

Faxa eta telefonoak goizean goizetik hasi dira lanean. Lan-taldearen arteko komunikazioa horri esker burutzen da neurri handi batean. Bulegokoaz gain izan ere, makina bat lagun ari da, beren eguneroko zereginei lapurtutako orduetan aldizkarirako lan eskerga egiten. Atal finkoak osatzeaz arduratzen dira batzuk eta aldizkako erreportajeak bidaltzen dizkigute beste batzuk. Kolaboratzaileen laguntzarik gabe, aldizkaria osatzea ezinezkoa litzateke eta horretaz jakitun, gero eta lankide gehiago gureganatzen saiatzen gara, sare trinkoagoa osatzearen. Kolaboratzaile-ehizan trebatu garen seinale, nonbait.

den estandarizatu gabeko hizkuntzan arauak finkatzea. Azaleko lehen zuzenketak egin eta gero, bigarren irakurraldia dator eta horrela artikulua gure idatze-ereduetara egokitu arte. Askori bide hori luzeegia iruditu arren, soilik horrela berma genezake argitaratutako artikuluen kalitatea. Eta halaxe egiten dugu.

Maketa-lanetan hasi orduko, eztabaida bizia pizten da. Lerro jarraiei forma desberdinak eman behar zaizkie eta aukera desberdinak aztertzen dira. Bitartean, azken zuzenketak, infogramak edota irudiak moldatzen jarraituko dugu. Orrialdez orrialde, artikulua eta azpisail solteek aldizkari-itxura hartzen dute. Ordenadoreetan egindako lana filmatzeko moldatzen da. Dena prest dago.

Hala uste genuen behintzat, baina zerbaitek huts egiten du azken momentuan. Murphy harro lego ke gure lanaz. Erlojuaren kontrako lasterketa hasi da berriro eta ale honi dagokion azken ahalegina egin beharko dugu. Pronostikoen kontra, garaiz iritsiko gara. Aldizkaria filmatu eta gero, banan-banan aztertu behar dira orrialdeak, koloreak, argazkiak eta gainerako xehetasunak. Dena ongi miatu eta gero, inprentara bidaltzen da. Gaur gauetz lasai egingo dugu lo.

Biharamunean ordea, goizeko zortzietan piztuko dira argiak eta ordenadoreak. Ikusten duzue, ez dago hurrengoaren zain gelditzerik: bila joan beharra dago. Zuek jasoko duzue gure nekeen berri aldizkaria eskuratu orduko. Ordurako lanean izango gara, hurrengoari aurrez aurre begira. 📄✂️

Egun bete

Josune Yagüe

Goizeko 8ak. Argiak eta ordenadoreak pizteko eta egunari neurria hartzen hasteko ordua. Aurreko egunetik osatu gabe utzitako lanak mahai gainean jarri eta lankideon artean banatu beharreko lanak zerrendatu. Nahi baino lan gehiago izango da guztiontzat. Lanean has-
tera goaz.

Pausoz pauso

Goizak aurrera darrai eta prentsa gainbegiratzeko unea da. Dibulgazio-usaina duten albisteak bilatzen ditugu, baita zenbaitzuetan aurkitu ere. Albiste horien tratamenduaz eztabaidatzeko aukerarik ez da falta izaten; besteok egindako akatsak gurean gerta ez daitezen, ariketa hau osasungarria da.

Artikuluak irakurtzeak askok uste baino denbora gehiago hartzen digu. Erredakzioan jasotako lanak ez dira iritsi bezala, gordin-gordinik argitaratzen eta moldaketak egiteaz arduratzen diren lankideek ongi dakite zein zaila


Bide berrietan

Pili Kaltzada

Ibilian-ibilian, asmo berriak bildu dira 100. alera iritsi den aldizkariaren inguruan. Ibilbidearen hasieran finkatu ziren helburuak, guzti-guztiak bederen, bete gabe daude oraindik. Kajoi batean gordetako gauzak bailiran, oroitzapenak eta itzaropenak pilatu egin zaizkigu.

Urteen bueltan berrituz

1974an kaleratu zen lehen alearekin ez dauka zerikusirik esku artean duzun aldizkariak. Guk esan beharrik ez badago ere irakurle, euri franko egin du sorrerako asmoei jarraiki euskarazko zientzi agerpede hura kaleratzen hasi zenetik. Alabaina, euskarak taxuzko zientzi agerpedearen beharra izaten segitzen du. Gure artean zientziaren eta teknologiaren dibulgazioa egitea ez da oraindik erabat arrunta. Halaber, “*Elhuyar. Zientzia eta Teknika*” aldizkaria ez da oraindik argitalpen normalizatua. Hori guztia ere esan beharrik ez zegoen. Ibilian-ibilian genion, urrats berriak ematera ausartzen den ume koxkoraren moduan, helbururantz hurbilduko ginenaren esperantzaz, zientziaren eskola haustea erabaki genuen. Mahoma eta mendiaren kontua aspalditxo ikasia genuenez, zain egon gabe, gu arrimatu ginen zientziarekiko interesa izan zezakeen jendearengan. Asmo horri erantzunez, zenbait irratik, aldizkarik eta

egunkarik eskainitako lekua betetzen hasi ginen. Ohitura bilakatu zen hortik gutxira: aldizkako agerraldiak finko bilakatu ziren irratietako parriletan eta euskal prentsan ohizkoak bilakatu ziren elhuyarkideon sinadurak. Alabaina, urrats solteak baino ez ziren horiek. Guztiei osotasuna eman behar zitzairen eta horretarako *ZETIAZ* sortu zen. Aspaldikoak ziren asmo horiek paper berrian idazteko elkartu ginen egun horretan jaio zen proiektu berria. Ordura arte egindakoa gogoratuz, euskal komunikabideetan zientziaren agerpena nahikoa eskasa zela eta egoera horri irtenbidea bilatzea betekizun handia eta beharrezkoa zela jadetxi genuen. Ordura arte egindakoa egiten jarraitu dugu geroztik: aholkularitza-zerbitzua eskainiz, aldizkako kolaborazioak burutuz eta edonolako argibidea behar duenari, edonork ulertzeko moduan, erantzunak ematen ahaleginduz. Beti-beti asmatu dugula esatea gehiegixko dela zuk baino hobeto ez daki inork, irakurle. Asmo berari dagokio bestalde, zientzia eta teknologiaren dibulgazioa sustatzeko iaz lehen aldiz antolatu genuen sariketa. Beasaingo CAF enpresa gurekin bat etorri da, sari horiek aurrera ateratzeko behar dugun sostengua emanaz, idazle berrien lana ezagutzera emateko ahaleginean. Orain zuek, irakurle eta idazleok behar zaituztegu ibilian ibiliz jarraitu ahal izateko. 

CAF-Elhuyar lankidetzariak

A. Arizkorreta

Egunkaria



Industriaren munduan bizi ditugun garai hauetako eguneroko jardun zoroak nekez uzten du behar bezalako lasaitasunez aintzat hartzen, edozein enpresarentzat, mugitzen den tokiko errealitate desberdin guztiak nabaritzea duen garrantzi ikaragarria.

Merkatuak gero eta nazioartekoagoak izanik, enpresen iharduera ere mundu-mailakoa bihurtzen ari da eta horrek industri aktibitatearen arlo desberdinetan orain arte ohizkoak ez ziren klabeetan harremanak izatera behartzen gaitu.

Guretzat horrek indar handiagoa ematen dio, eta konbentzimendu osoa dugu horretaz, geure gizarte-errealitatea “ukitzeak” duen garrantziari, gure gizon eta emakumeen errealitatea, alegia.

Euskadin gaude eta euskararen normalizazioari emandako sostengua, tematuta gauden politika bat da gure enpresan.

Esparru horren barruan, Elhuyarrek batera euskarazko zientzia eta teknologia zabalkundeko lehenengo lehiaketari laguntzea erabaki genuenean, ez genuen momentuko neurri bat hartu. Aldiz, guk hori uste dugu behintzat, urrats bat gehiago eman genuen euskararen normalizazioaren aldeko politikan, Orduan hala ere, ez ginen erabat jakitun martxan jartzen zenaren garrantziaz.

Aldizkaria irakurtzeko aukera dutenak gurekin bat etorriko dira seguru, orduko ekimen hark duen garrantziaz.

100. alera iritsi den proiektu honetan nolabaiteko partaidetza edukitzeak adore ematen digu bide horretan jarraitzeko.

A. Bayo/Argia



Laxaro Azkune
Herri Irratiko esataria

Elhuyar, 100 ale

Esan dezadan hasteko Elhuyar anaien berri Elhuyar sortu zuen taldearen ondoren jakin nuela. Artean Donostia aldean ikasle nenbilen eta harreman ona izan dut geroztik talde sortzailearekin.

Oker ez banaiz, lehen aldizkaria 1974.ean kaleratu zen. Taldeak ere garaitu horretan sortua izan behar du. Hasierakoak berak ez hainbeste, baina gero eta ulergaitzagoak zitzaizkidan aldizkariak orduan argitaratu ohi zituen gaiak. Egin beharreko lana zen, zientzi gaiak ere euskaraz landu

beharra baitzegoen, baina ez ziren edozeinek ulertzeko modukoak. Hasieratik laguntze aldera eskuratzen nuen aldizkaria eta halaxe egin nuen zenbait urtez.

Orain dela 10 urte ordea, "Elhuyar. Zientzia eta Teknika" aldizkariak ibilaldi berria hasi zuen eta geroztik oso gertutik jarraitu izan dut bere ibilbide hori. Zientzia eta teknika alorreko zenbait berri bertatik eta euskara xamurrean jakiteko aukera eman izan dit. Hainbat arlo jorratu izan denez, ez da beti erraza izaten guztiak irakurtzea, baina oraingoak darabiltzan edukiak eta edukiak lantzeko erak ez dute haserako hark zuen zailtasunik, eduki-aukera zabala da eta interes apur bat izanez gero, erraz jabetzeko eran adieraziak. Albiste laburren saila oso arretaz irakurri izan dut beti; ekologia, klima eta izadiaren inguruko lanak ere gogoz jarraitu izan ditut, norbere zaletasunak tirata, noski. Aurkezpenaren aldetik ere, hobekuntzak nabariak izan dira 10 urte hauetan, bai diseinuari eta baita koloreari dagokien ere.

Orain arte eman dudak ikuspegia irratilari batena baino gehiago, neure interesaren baitakoa da eta ez dakit hori inori interesatzen ote zitzaion. Irratilaria naizen aldetik, bertako gai asko eta beroiek landu dituztenen bidez irratiz hedatzen pozik aritu naiz hasieratik bertatik. Zientzia eta teknika ere jende arruntarengana hurbil daitekeela eta hurbildu beharra dagoela uste dut eta horretan laguntza estimagarria da Elhuyar aldizkariak eta bere lan-taldeak ematen duena. Zientzia jakintsuen zokotik jende arruntarengana hedatzeko ahalegin bikaina da Elhuyarrena eta duen baino estimazio eta sona gehiago merezi luke.

100. ale honek eman diezaiokeen sonak jarriko al du aldizkari hau behar lukeen lekuan eta bide batez euskaldunok ere gai ugari tan horren ezjakinak izateari utziko ote diogun galdetzen diot neure buruari. Izan ere, eguraldiaz asko hitz egiten dugun arren, lainoak nola sortzen diren eta euria nola egiten duen ere oraindik askori ulergaitza egiten baitzaio.

A. Bayo/Egunkaria



Martxelo Otamendi
Euskaldunon Egunkariko zuzendaria

Ehugarren zoriona

Ehugarren urtean gaude. EAJk ehun urte bete ditu aurten eta zineak beste horrenbeste egin du. Zientzia eta tekno-

logiaren berri horren era prestu eta dibulгатiboan eman digun Elhuyar aldizkariak ere ehugarren klubean eskatu du sarbidea eta ehun ale besapean dituela jo du klubaren atean. Euskaraz lan egiten duen gizartea ari da piskanaka kluba sortzen eta klubaren dekanotakoa da eskutan duzun aldizkaria. Zenbaki mitikoa da ehun, heldutasuna bezala eskarmentua adierazten duena, urtebetetzearen muga bere buruari ezarriz perspektiba ikaragarriak (hitzaren bi adieratan, gutxienez) zabaltzen dituena.

Ehun zenbaki hauetan munduan izan diren aurrerapenen lekukotza eskaini digu Elhuyar aldizka-

riak, mundua gureganatu egin digu eta gu munduratu egin gaitu.

Mundua bera bezalaxe, apasionantea den etorkizunaren atarian dago aldizkaria: paperaren eta bitaren arteko lehia gertutik segitu beharko du eta orain arte jardun den zorrotasunaz hornituta prestatu beharko du bere burua garai berrietan euskal herritar zientziazaleari ahalik eta zerbitzurik egokiena emateko.

Ehugarren kluban sartutako azkena denez, berari, Elhuyar aldizkariari, dagokio sartu behar duen hurrengoarentzako alfonbra gorria erostea. Ea nork zapaltzen duen alfonbra berria.



Bide berriak urratzen

Egunkaria



Mari Karmen Garmendia
Kultura sailburua

E hungarren alea kalera-
tu du Elhuyarrek, os-
patzeko moduko ger-
takizuna euskaltzaleontzat.
Zorionak beraz, aldizkaria
jorratzen lagundu duzuen
guztiori, aldizkariko langile
zein irakurleoi.

Urrats berrietan barna
abiatu izan da Elhuyar aldiz-
karia urte hauetan. Irakur-
leak ondo dakienez, euska-
rak ez du sarbiderik izan
bere historian zehar hain-
bat gizarte-esparrutara.
Euskarazko unibertsitatea-
ren falta zela, hirietatik eta
industri gunetatik zabaldu-
tako erdal-eragina zela edo
beste arrazoiak zirela, erda-
raz jardun behar izan dugu
ia beti euskaldunok zientzia
eta teknikako gaitan.
Horregatik izan da urratzai-
le Elhuyarren bidea.

Urratzailea bai, baina lekuz
edo garaiz kanpokoa ote da

Elhuyarren apustua? Euska-
rak ez ote die alde z aurre-
tik premia handiagoko
beharrei erantzun behar?
Galdera hauek edo antze-
koak egin diezaizkioke bere
buruari baten batek.

Egia da euskarak egunero-
kotasuna irabazi beharra
daukala ezer baino lehen,
belaunaldien arteko jarrai-
pena ziurtatuz eta ohiko
esparruak finkatuz. Euska-
raren presentzia sendotu
beharra dago etxean, auzo-

an, lagunartean eta egune-
rokotasuna osatzen duten
bizitzaren beste alorretan.
Baina egia da halaber, ohiko
leku eta esparru horietan
egindakoak beste motako
jarraipena eskatzen duela
orain arte erdarak bakarrik
monopolizatu dituen gune-
etan. Lan mundua eta uni-
bertsitatea dira horren adi-
biderik argienak.

Izan ere, euskaldun osoak
izateko eskubidea dugu
euskal herritarrok. Eta
horretarako ezinbestekoa
da euskara osatzeari ekitea.
Horra hor, gure etorkizu-
nerako apustua eta Elhuyar
aldizkariak eskaintzen due-
na: batetik, erreferentzia
eta tresna erabilgarria da
ohiko esparruetan egiten
dena indartu eta osatzeko
eta bestetik, oraingo beha-
rrei erantzutearekin batera
geroa landuz joateko. 